

# Onomatopeiak Erroibarko hizkeran\*

Orreaga IBARRA MURILLO

**Resumen:** En este artículo se dan a conocer las onomatopeyas del dialecto vasco del valle de Erro. Algunas de estas también son comunes a otros dialectos, otras, sin embargo, son específicas de éste. En este trabajo se realiza una clasificación por campos semánticos. La clasificación incluye onomatopeyas derivadas de sonidos, apodos, movimientos, objetos que hacen ruido, animales, cosas de poco valor y juegos, así como onomatopeyas relacionadas con la comida y con el habla infantil. En algunos casos, el ejemplo aparece insertado en una frase y en otros casos se acompaña de la traducción.

**Abstract:** In this article we analyze the onomatopoeias of the Basque dialect of the Erro Valley. Some of these are also common to other dialects, some others, however, are specific to it. In this paper we present a classification of onomatopoeias into semantic fields. This taxonomy rating includes sounds, nicknames, movements and objects that make noises, animals and with things of little value, games, as well as onomatopoeias associated with eating and with children's speech. These onomatopoeias are illustrated both by means of examples in phrases or with a translation.

## 1. Onomatopeiak zer diren

Orain arte onomatopeiak baztertuxe egon dira sistema linguistikoan, ikuspegi formalisten aldetik, bereziki; bazterketa honetan zerikusia izan dute hainbat hizkuntzalariren eraginek. Saussurek, erraterako, sistema linguistikoaren parte ez direla kontsideratzen zuen: “no podían considerarse elementos orgánicos de un sistema lingüístico”. Urrutira joan gabe, Newmeyer amerikarraren hitzek honelaxe diote: “The number of pictorial, imitative, or onomatopoeic non derived words in any language is vanishingly small” (1993: 758).

Ibarretexek eta Traskek diotenez, onomatopeiek ez dute behar bezalako arreta izan (1997: 149). Hala ere, azken honetan pentsamendu hau baztertuxe gelditu da eta gero eta hizkuntzalari gehiagok ikusi dute, hizkuntza baten onomatopeiak uste baino uga-

---

\* *Artikulu hau, FF 12008-01844 “Origen y evolución de los dialectos vascos”, izena duen proiektuaren babespean burutu da.*

riagoak direla, eta hizkuntzaren oinarritzko atal bat osatzen dutela. Hizkuntzalari batzuek, gainera, kategoria beregaintzat hartzeko arrazoiak daudela erraten dute.

Onomatopeia hots natural bat imitatzen duen hitza dela erran dezakegu, hau da, hitzak berak adierazten duenaren soinua imitatzen duena. Horrela definitzen du Ibarretxek: (1996c: 9) “Onomatopeia erabiliko dugu soinua eta esanahiaren arteko erlazioa azpimarratzeko, horrela erabili delako euskal ikasketetan gisa honetako hitzak deitzeko”.

Charles Nodierren bereizketa bat ekarri dugu lerro hauetara, alde batetik ‘onomatopeia naturalak’ (herri guztietakoak eta hots berekoak), eta ‘tokiko onomatopeiak’ bereizten ditu (hizkuntza bakoitzak berak sortuak eta herri bakoitzeko konbentzioen arabera sortuak).

Horretan oinarrituz gure xedea da Erroibarko hizkeran dauden onomatopeien sailkapen semantikoa egitea, eta beren eremua eta erabilera zehaztea. Horregatik ez dugu onomatopeien izaeran sakonduko, horretarako dugu Ibarretxeren hiztegia eta honen ondotik etorri zen lan sakona.

Honezaz gain, zer den onomatopeia zehazteko oso egokiak iruditzen zaizkigu Grammont-en hitzak: “Hitz bat onomatopeia da hala dela sentitzen baldin badugu”.

Bertzaldetik, beti deigarria iruditu zait nola erabiltzen dituzten onomatopeiak euskaldun zaharrek, alegia, herri xehearen ahozko hizkeran nola erabiltzen diren, barrubarrutik ateratzen zaie, eta ugariak dira. Gehienetan ez dakite hitz bakoitzaren esanahia zehazten, baina ederki hornitzen dituzte eguneroko esaldiak, adib.: *zirt-zart*; *Hor daile ttur-ttur*; *Dinbi-danba zego leyoa*. Jakina, ahozko erabileran nagusitzen dira bereziki, horregatik, ez dira ikertzaileon helburu izan; eta horrezaz gain, hizkuntza batetik bertzera itzultzea zaila izan da. Bertzaldetik, belaunaldi berrietan, onomatopeiak ez dira hain erabiliak gaurko hizkera batuagoan eta egungo diskurtsoan hauen maiztasuna gutxitu dela erranen nuke.

Ibarretxek dionez, hots naturala eta onomatopeia bereiztea komeni da. Azken hau ez da hots naturalaren imitazioa, baizik eta hots horien transkripzioa hizkuntza bakoitzaren eta horren sormenaren egitura fonikoan. Horrela, onomatopeia mota hauek bereiz ditzakegu:

1. Gorputz sinbolismo fonikoa erakusten dituztenak, hitzunaren barne emozioak edo sentimentuak adierazten dituztenak: *aiei!*, *atx!*, *bai*, *to!*
2. Naturaren soinuak ordezkatzeko dituztenak: *pil-pil*, *bor-bor*, *tarrata* ‘ruido de rasgueo’.
3. Sinbolismo foniko sinestesikoa: alegia, soinu akustikoen bidez (bokal, konsonante, prosodia) ordezkatzeko dira hainbat fenomeno, entzuten ez direnak. Horren barnean daude ikus eta entzunezko ezaugarriak, ukitzeak, esaterako, tamaina eta forma: *ñañarro* ‘txikia’, *moñoño* ‘pequeño y majico’, *kili-kili*, *kilike* ‘cosquilla’.
4. Sinbolismo foniko eta konbentzionala; zenbait fonema edo fonema taldea esanahi batzuekin elkartzean datza. Esaterako, *txutxu-mutxu*, *esamesa* hizketan egotearen soinua gehienetan kontsonante txistukariekin erlazionatzen da.

Onomatopeiak asko aldatzen dira hizkera batetik bertzera. Eta halaxe da, hizkera honetan bertzeetan ez dauden hitz asko daude, eta alderantziz. Horretan oinarrituz, Erroibarko onomatopeien bilketa edo egin daiteke.

Onomatopeia ugari duten hizkuntzetan, eratorpena eta hitz elkarketa ugaria izaten da. Euskaraz, gainera, hitz berria sortzeko erraztasuna dela eta oso aise izaten da izen berriak sortzea unitate morfologikoetatik abiatuz. Hauetako garrantzitsuenak da izenaren funtzioa duena, adib. *tzitzor* ‘granizo’. Bertze talde handi bat da adberbioaren funtzioa egiten duena, gehienak moduzkoak dira, hauetako anitz *-ka* eratorpen atzizkiarekin osatzen dira: *kurrinka*. Hauetako beste anitzek aditzaren funtzioa daukate, *-tu* aditz atzizkiarekin osatutakoak, adibidez: *putzikatu* ‘destrozar, hacer pedazos’, *kazkarratu*, *kazkurretu* ‘ponerse de mal talante’. Bertze batzuk adjetibo funtzioarekin aurkituko ditugu: *tirripittin* ‘bonito y gracioso’, eta baita adberbioaren funtzioa daukatenak ere: *tipi-tapa joan zen* ‘andando despacito’.

Bukatzeko, badira batzuk interjekzio gisa sailka daitezkeenak; horien artean sartu ditugu etxabereak deitzeko soinuak (*mis-mis!*, *ttauri-ttauri!*), eta baita ere hainbat adierazpide: *kia!*, *ako!*, *ekilikua!*

Onomatopeien eremua oso irristakorra da, izan ere, hizkuntza bakoitzak modu desberdinean interpretatzen ditu hots naturalak. Gainera, hots naturalak entzuteko ahalmena aldatu egiten da, bai leku batetik bestera, eta bai pertsona batetik bestera ere. Halaber, entzumena eta arreta-mailaren arabera aldeak daude, entzumen-mailak eta arreta-mailak interpretazio bat edo beste sortzen ditu. Azkenik, hizkeren arabera aldeak daude; hori dela eta, gure helburua izanen da Erroibarko hizkeran bildu ditugunak sailkatzea eta ezagutaraztea.

## 2. Onomatopeien semantikari buruz

Hizkuntza guztietan bezala, onomatopeiak erabiltzen dira hainbat alor semantiko deskribatzeko, Traskek bost alor proposatzen ditu (1997: 257); beroietan hitz multzo hauen kontzentrazioa ikusten ahal da.

1. Animali txikiak.
2. Ekintza desberdinak (mugimendua, komunikazioa, argia, janaria, edaria); eguraldiari lotutako fenomenoak.
3. Musika-tresnak.
4. Ezaugarri fisiko eta psikikoak.
5. Sexuarekin loturiko hitzak.
6. Beste batzuk: balio gutxiko gauzak, tresnak.

Guk bertze sailkapen bat egin dugu; kontuan hartu behar dugu guk datuak bildu unean hizkera ez zegoela oso bizirik. Jakina denez, egun euskaldun zahar guti gelditzen dira. Hori dela eta, semantikako alor askotan ez dugu adibiderik aurkitu; ordea, hizkera bizi-bizi dagoen hizkeretan aberastasun handiagoko adibideekin osa daiteke lana.

Egitura morfologikoari dagokionez, ez dugu zehatz-mehatz aztertuko, baina orokorrean esan dezakegu badirela, ohi bezala, errepikapenez sorturikoak: batzuk erabatekoak (*putz-putz*, *kili-kili*) eta beste batzuk zatikako errepikapenak dira: *ñiki-ñaka*, *xiri-zarra*. Duten funtzioari dagokionez, batzuetan izenak dira: *asotsa*, *ufetsa...* bertze batzuetan adberbioak: *marmarka*, *tzirurike*, eta badira horietatik sorturiko aditzak ere:

*ziztetu, dilindetu*. Jakina denez, egitura konplexuagoak sortzeko mekanismoak arruntak dira euskaraz, eta horrela, izen, adjektibo edo adberbio berriak sortzen dira: *arkumaka*.

Bertzaldetik fonemen erabilerari dagokionez, ohikoa da *f*- fonema haizezko ekin-tzekin lotzea: *fu eman, ufets* etab. Arrastaka ibiltzea edo zerbait ekartzea adierazten duten hitzetan *r*- fonemarekin osatzen diren bezelaxe: *terre-terre*. Soinua ordezkatzan dutenean dardarkariak agertzen dira: *karraka, burrunbe...* eta baita txistukariak ere: *txuku-txuku*. Edo loditasuna adierazten denean, *o* fonema agertu ohi da: *potoko, tokota*.

## 2.1. *Soinua adierazten dutenak*

Talde honetan sartu ditugu hitz batzuk onomatopeia soilak direnak, alegia, hotsa bera adierazten dutenak, eta bertze batzuk, hotsaren abstrakzioaren adierazleak direnak. Gauzen hotsen inguruan hainbat eta hainbat aldaera daude; batzuk uraren hotsa adierazten dute. Bertzaldetik, negarrarekin, kexarekin, tresnek egindako kolpeekin, animaliek egiten duten soinuarekin hainbat adjektibo eta tresnen izen sortu dira, bertze atal batean sartu ditugunak.

*Arkumaka*: arkumaka, marraskaka <Gimiendo>. *Arkumaka zagon bei ure*.

*Arrankure*: arrangura, kexa <Queja, lamento>. *Jendeak bear du bizi trankil, trankil, ez arrankurekin*.

*Asotsa*: zarata, pertsonen soinua <Ruido >.

*Burrunbe*: zarata, soinua <Estruendo>.

*Furrutoska*: irrintzia <Chillido chirriante>.

*Karranka*: kurruska, karrakots <Crujido, ruido chirriante>.

*Kaxka, Kaska-kaska*: kolpea <Golpecito>. *An ari nitze kaxka-kaxka*.

*Kaxkaka*: kolpeka <Golpeando>.

*Kaxkarabil, kaskarabil, kaxkabil*: kaskabiloa <Cascabel>.

*Kirris-karras, karras-karras*: hortzen soinua <Sonido de dientes>.

*Kirriski-karraska*: fruta hortzekin jatean sortzen den soinua <Sonido al comer la fruta>.

*Klaxka*: soinua <Manera de hablar clara>. *Ze klaxka duen honek! 2*. <Cencerro rectangular que se les pone a las ovejas> ardiaren joale txikia.

*Kriski-kraska*: belarra zanpatzean sortzen den soinua <Sonido al aplastar la hierba>.

*Kukuruku*: oiloaren soinuaren onomatopeia. *Lokak iten du klo-klo, ta ollarrak kukuruku* (Lin).

*Marmar, marmara*: kexua, arrenkura <Protesta>. *Nere lengusuen aite ala ze, dena marmara*.

*Marmarka*: marmurien <Protestando, murmurando>. *Izeten dire yende gaitsetsak beti ari-tzen baitire marmarka bertzeri*.

*Marmarriatu*: marmarriatu <Protestar>. *Marmarian ari da egun guzian*.

*Marraka*: marraka, ardi aziendaren oihua <Balido de oveja, grito de dolor, gemido de los animales>. *Ardi-marraka gure bordan 2*. <Maullido de gato>. <Sobrenombre que se les da a las personas malhumoradas y que reniegan constantemente>. *Ori dabile beti marraka*.

*Marrakaz*: marrakaka <Balando, gritando, gimiendo>. *Umiakin balin bedago ta bereixten balin bauzu umiaingandik aitiko da marrakaz*.

- Marranta, marrantatu*: ahots galera <Ponerse afónico>.
- Marraska*: nigarra, oihua <Llanto>.
- Murtzuri*: negarra, marmara. *Murtzurieka*: marmarka.
- Olo-karaka*: oiloaren karaka <Cacareo de la gallina>.
- Tartarreatu*: hitz egin, mintzatu <Hablar mucho y con poco fundamento, dando la tabarra>.
- Ttaka-ttaka*: esnea edatean sortzen den soinua <Sonido al beber la leche>.
- Txin-txin*: diruaren hotsa <Sonido del dinero>.
- Txuku-txuku*: marmara, esamesa <Murmuración>.
- Txurruسته*: iturria, ura erortzen den tokia <Grifo>.
- Txurrutada*: zurrutada <Trago>. *Txurrutada bet ur hartu biar dugu*.
- Txurrutarri, Zurrutarri*: ontziak garbitzeko harria. <Vertedero de la cocina, piedra de fregar>.
- Tzirurike*: txirurika <Silvando o tocando algún instrumento>. *Nor ari da or txirurike? 2.*  
<Ruido chirriante, silvido>. *Armaria erekitzen asten nuelaik iten zue txiruket*.
- Tzuku-tzuku*: edatea xurgatuz <Beber absorbiendo>.
- Ufets*: corrocada <Eructo>.
- Zalapartaka*: zarata eginez <Haciendo ruido>.
- Zaragata*: zarata, nahasmena <Ruido, follón>. *A ze zaragata in zute mutiko goyek!*
- Zirurike*: gurpil autoen soinua, txistua. <Ruido estridente>.
- Zurrunga*: zurrunga egitea lo zaudenean <Ronquido>.
- Zurrutero*: edatea maite duenari esaten zaio <Se dice del que le gusta la bebida>.

## 2.2. Soinuaren tresnak, bereziki perkusio tresnak izan ohi dira

- Danda*: ezkil hotsa <Campanada>.
- Karraka*: elizetan jotzen zen zurezko tresna, soinu handia egiten duena, pertsona hitzontzia. <Instrumento de madera utilizado en la iglesia para hacer ruido>.
- Kuzkulle*: joale txikia <Cencerro pequeño>.
- Punpa*: joale handia <Cencerro grande>.
- Ttun-ttun*: musika tresna, soka batzuk eta kajoi bat daukana <Salterio>.
- Turuta*: <Bocina, corneta>.
- Txintxa*: ardiek daramaten joale txikia <Cencerro pequeño de las ovejas>.
- Txirrin*: txirrina <Timbre>.
- Txulubite*: txirula modukoa, txistua izan daiteke edo soroan adar batez egindakoa <Especie de txirula>.
- Tziztu*: txistua <Silbato>.

## 2.3. Goitizanak

Goitizen anitz delako pertsona horrek egiten duen soinuan oinarritzen dira, horiek duten itxuran sortzen da onomatopeia:

*Karraka*: anitz mintzo den pertsonaz esaten da <Hablador>.

*Kaxka*: Mezkirizko baten goitizena <Apodo de un hombre>. *Kaxka erraten tsekote, Gereñengoatek man tzeke tiruat orrei ta orduen erraten zute.*

*Kixkil*: goitizena, gaztaren kizkila zeramalako <Aro redondo para hacer el queso. Apodo de hombre de Mezkiritz>.

*Matrako*: pertsona zakarra, petrala. <Apodo común en estos valles, persona de poca cultura y de ademanes toscos>.

*Tararira*: pertsona aldakorrra <Persona cambiante>.

*Tarta*: tetela, hitz totalka aritzen denari esaten zaio. <Tartamudo>. *Hor da Buruzuriñeko tarta goi!*

*Tartarro*: pertsona hitzontzia <Hablador>.

*Tokota*: aurpegi borobila zuten familia bateko emakumeei esaten zitzaien. <Nombre de mujeres regordetas>.

*Zaratrako*: mozorrotutako gizona, Aurizberrin <Disfraz de hombre con una cabeza grande>.

## 2.4. Mugimendua

Atal honetan mugimenduarekin loturikoak sartu ditugu; batzuk urratzean, edo maruskadura egitean sortzen dira. Beste batzuk irri egitean, doi-doi ibiltzean, dardara egitean, zintzilikatzean edo kolperen bat jotzean. Gizakiak hauek guztiak imitatu ditu eta bere mintzairara ekarri ditu.

*Arramaska, arramizke*: harramazka <Arañazo>.

*Arrebutxi*: gauzak besagainka botatzea <A voleo>.

*Atz in*: hazka egin <Arañar>.

*Bilintxi-balantxa*: kulunkatu <Columpiarse>.

*Dardarike, dardara, daldarike*: dardara. <Temblor>. *Daldarike dago andre goi.*

*Dil-dil*: dardara <Temblor>. *Dil-dil egoten ze gizon goi.*

*Dilindan*: zintzilika <Colgando>.

*Dilindetu*: zintzilikatu <Colgar>.

*Dir-dir, dirdiretu*: disdiratu <Brillar el sol>. *Iruzkie dir dir.*

*Errestatu*: herrestatu, herrestan eraman <Arrastrar>. *Ezin errestatuz zangoak!*

*Firurikeka*: bueltaka, abiadura handian ibili <Ruido chirriante>.

*Inbuluzkeka*: itzulipurdika <Dar volteretas>.

*Inbuluzketu*: itzulipurdikatu <Revolcarse>. *Mando ura botatzen zelaik iten tzue.*

*Irri egin, irrizajaka*: irriz ajaka egon. <Reirse a carcajadas>.

*Kirrinki-karranka*: onomat. <Chirriando>. *Karro oyek kirrinki-karranka.*

*Kirriski-karraska*: fruta hortz tartean jatean egiten den soinua <Ruido al comer fruta>

*Kukurrubiko*: kukubilko <En cuclillas>.

*Kunke*: axuriek bataztean amarengandik edatean ematen dituzten golpeak <Golpe que dan los corderos al mamar>.

*Maingu, mainguke, maingi ibili*: mainguka ibili <Andar cojo>.

*Marruxketu*: zura urratu, tarratatu <Cepillar la madera, restregar>.

*Putz-putz*: miatzen ibili <Andar registrando> *Beti putz-putz Montaineko* dio esaera zahar-  
rak Aurizberriko etxe bati buruz.

*Tapa-tapa*: 1. laister xamar ibiltzea <Andar rápido> 2. Lan jarraitua adierazteko esamol-  
dea, eginahala <Trabajo constante>.

*Tarrapataka*: presaka, arrapaladan, erori ez erori <A tropezones, atropelladamente>.

*Tarrapataka torri ze gure mutiko goi*.

*Tarrapatan*: bakerik ez duena, lasterka dabilena <Que anda atropelladamente>.

*Ter-ter*: poliki-poliki dabilenaren pausua <El que anda despacio>.

*Tipitan-tapatan*: tipitin-tapatan <Onomatopeya del paso corto y ligero>. *Tipitin-tapatan  
torri ze Pello*.

*Tipi-tapa*: onomat. Pausu motza eta arina <Paso corto y ligero>.

*Tirri-tirri*: alde batetik bestera ibiltzea <Andar de un lado para otro>. *Tirri-tirri ibiltzen  
tzire segundila oyek*.

*Tittili-tattala*: poliki eta dorpe ibiltzea <Andar torpemente>.

*Ttuku-ttuku*: ixilka-mixilka ibiltzea <Andar silenciosamente>.

*Tur-tur, ttur-ttur*: poliki-poliki ibiltzea <Andar despacio>.

*Txinguli-manguli*: modu batean edo bestean <Andar de un modo u otro>.

*Tzilipurdika*: bueltak eman ipurdia goraturik <Voltereta, con la cabeza abajo y las pier-  
nas arriba>.

*Tzirizorian*: noraezean ibili <Andar sin rumbo>.

*Tzurruzte*: zulo txo batetik isurtzen den ura <Agua que cae de un agujero>.

*Zerrel*: zerbait arrastaka ekartzea <Arrastrar algo>.

*Zilintze*: zintzilikatu <Colgar>.

*Zinbili-zanbala*: zabua <Columpio>.

*Zirripi-zarrapa*: gauzak egitea ordenarik gabe, edozein modutan <Hacer las cosas sin  
orden>.

*Zitz*: tzitzatu <Punzar>.

## 2.5. Animaliak deitzeko deiak

Anitz dira animalien inguruan sortzen diren onomatopeiak. Horietako asko deitzeko erabiltzen dira eta asko, animalien soinetatik sortuak dira. Gizakiak batzuetan animalia-  
ren oihua imitatu eta erabili egiten du, eta gero, hori, animalia-  
ren izen arrunta izatera pasa daiteke; *mis-mis* kasuan bezelaxe. Katuaren soinua *mis* antzekoa da, eta gero, hainbat katuk *Misino* dute izena. Gauza bera gertatzen da oiloarekin, *ttitta* da txitoei deitzeko modua.

Gizakia eta animalia-  
ren arteko traturako horiek erabiltzen dira, eta batzuetan, interjekzio-  
tzat jotzen dira; sail honetan ere, bizimodu aldaketa dela eta, anitz galdu  
dira. Herriko bizimoduan, ordea, lehenago oso arrunta zen animalia bakoitzari bere doi-  
nu zehatzarekin deitzea: ardiari *ñok*, *ñok*, eta behiari *txola*, *txola*.

Era berean, hauetako batzuk animalien izenak dira.

*Aida*: behiak ziztatze deia <Llamada a las vacas>.

*Axl!*: mina adierazteko soinua <Expresión de dolor>.

*Aunka, aunke, aunkez*: zaunka <Ladrado>.

*Aunkeka*: zaunkaka <Ladrando>. *Tzakur horrek iten du aunke. Tzakurre dago aunkez.*

*Axatu, xaxatu*: txakurra ardiak zirikatzen duenena <Azuzar>. *Axele, axele!*

*Barra-barra*: onomat. ardia deitzeko deia <Llamada a las ovejas>. *Aida barra-barra.*

*Bil-bil*: erleak deitzeko oihua <Llamada a las abejas, a la vez que se golpeaban dos piedras>.

*Bis-bis/ biz-biz*: erleak deitzeko deia, eta baita umeek pixa egin dezaten. <Llamada a las abejas>.

*Burtxintx*: urtxintxa <Ardilla>. *Burtxintxe oyetaik ere guti zaundiko dire orai.*

*Futots*: hudo <Hurón> *Lat. Mustela fudo. Bai, futotxak ibiltzen tzire inguru honetan.*

*Gatapurtxintxe, kataburtzintze*: kataburtzintze <Ardilla>.

*Klo-klo*: oiloaren soinua <Canto de la gallina> *Oiloak iten du kloklo eta ollarrak kukuruku.*

*Kukula*: arkakusoa <Pulga>. *Sarna fuera, kukula atera fuera!*

*Kukurruku*: oilarraren soinua <Canto del gallo>.

*Kukurruxte*: oilarraren gaildurra <Cresta del gallo>.

*Kurrinke*: txerrien soinua <Sonido del cerdo>.

*Kux-kux*: txerrien deia <Llamada del cerdo>.

*Mis-mis*: katuak deitzeko soinua <Llamada del gato>.

*Ñok-ñok*: ardiak biltzeko deia <Llamada de la gallina>.

*Papagorri, papogorri*: papagorria <Petirrojo>. *Papagorri oye tire hemengo txori ttarrenak.*

*Pipi*: pipie <Pepita, enfermedad de los pollos y gallinas que consiste en un tumorcillo que les sale bajo la lengua y les impide cantar y cacarear>. *Mien izeten dute pipie ta kentzen dakote zenbaitzurek, badakitenek.*

*Pitika, bitika, pitike*: antxumea. Onomatopeiaren antza du, baina ez zaio motibaziorik ikusten <Cabrito>.

*Purra-purra*: oiloak deitzeko soinua <Llamada a las gallinas>.

*Purri, ttita!*: oiloak deitzeko soinua <Llamada a las gallinas>.

*Tox-tox*: behiak deitzeko <Llamada a las vacas>.

*Tauri-tauri*: erleak deitzeko soinua <Llamada a las abejas>.

*Ttako*: ttako <Operación que se les hacía a los cerdos para extraerles ampollas de la boca; cuando se les ponían negra, los animales morían. Fiebra aftosa o glosopeda>.

*Negu ontan ere ttakoa in biar dugu.*

*Ttor-ttor*: ardia deitzeko soinua <Llamada a las ovejas>.

*Txapa*: txakurra deitzeko soinua <Llamada al perro>.

*Txingurri, txinurri, tzinurri*: txinurria <Hormiga>. *Txingurri aunitz ibiltzen zire ordik.*

*Txola*: behiak lasaitzeko soinua, laztantzen zaien bitartean <Voz para llamar a las vacas>.

*Txugarima*: hegabera, txori mota <Avefría>.

*Txurra*: ardi mota bat <Tipo de ovejas>.

*Usi, ausi, uxu*: oiloak uxatzeko soinua <Sonido para ahuyentar a las ovejas>.

*Xapi*: katuak izutzeko deia <Sonido para asustar a los gatos>.



## 2.6. *Balio gutxiko gauzak*

Antza denez, mota askotako balio gutiko gauzek, txikiak edo zati txikiez egindakoez toki bat hartu dute onomatopeien munduan.

*Aguatxirri*: esaten da bazkariak ur asko duenean <Comida aguachinada>.

*Altxirri*: ardiaren kaka <Excremento de oveja>.

*Erresto*: hondarra <Resto>. *Oraño nik uste baden erresto zerbait herri hontan.*

*Errestako*: errestakoa <Rastrillo que se pasaba en la tierra>. *Pasatzen ze lenago area, gero errestakoa.*

*Fitsik ez*: deus ez, ezer ez <Nada>.

*Harramako*: balio gutxiko zerbait, ez duena probetxurik <Algo que no tiene provecho>.

*Harramakorik ez karri onata!*

*Kazkarria*: kazkarria <Trozo de excremento seco adherido a la piel de los animales y a la lana de las ovejas>. *Kazkarriaz bete da hori.*

*Kurruxko*: ogiaren muturra <Punta del pan>.

*Mizka*: pixka bat, balio gutiko gauza <Cosa de poco valor>.

*Mizkinkerie*: <Gula, golosina>. *Mizkinkeri oyek gustetzen zeizkio.* 2. iz. hondarra <Restos, cosas pequeñas, supérfluas>. *Mizkinkeri oyeekin ibiltzen da beti (Mez).*

*Purruxka, purruxke*: porroska 'pedazo'. *Purruxka anitz uzten dute ume goyek.*

*Purruxta*: barre-purrustada <Risotadas> 2. zerbaiten zati bat <Parte de una cosa>.

*Purtzil*: fundamentu gutikoa <De poco fundamento>. *Ze mutilo purtzile!*

*Purtzileri*: purtzileria, gauza txikiak <Menudencia>. *Purtzileri da gauze zerbait eztena fundamentu andik ta ai zera denbora galtzen.*

*Puztur*: puzturra <Excremento muy duro>. *Gure aurrek puzturrek iten tu egun oketan.*

*Tximista*: urraren adaxkak saskiak edo esportak egiteko erabiltzen direnak <Ramas de avellano>.

*Txirdil*: dindirri, zintzilikatzen duen zerbait <Colgajo>. *Begira ze txirdile!*

*Zarandaja*: nahasmena <Lío, jaleo>. *Zazi zarandaja oyeiki!*

## 2.7. *Eguraldiari loturikoak*

Eguraldiak onomatopeia ugari sortu ditu: euriaren soinua, kazkabarra, tximista, txingarra edo itsasoa; alegia, fenomeno meteorologiko hauek soinua sortzen dute erortzean edo mugitzean.

*Bolada*: bolada <Golpe, ráfaga>. *Instante batetic bercera Ixasoaren boladac goiticen cituen ceruco odietaraño* (Erro).

*Danba-danba*: elurra erortzen denean egiten den soinua <Sonido al caer la nieve >.

*Fisusitxe*: bisutsa <Ventisca>. *Egun fisutse dabilek.*

*Ihortziri*: trumoa <Trueno>.

*Kazkaragar*: kazkarabarra <Granizo>.

*Langarra*: euri leun eta geldoa <Lluvia suave>.

*Lantzurde*: lantxurda, antzigarra <Escarcha>.

*Lapazta*: lapatxa, elur-malata txikia. <Copo pequeño de nieve>. *Elur puxket botatzen duelaik, bider o iru eri edo ola goratasunian, lapazta deitzen da ori* (Mez).

*Otsaila, Firilli-faralla*: erraten da euria hasten denean elur maluta txikiakin.

*Orro*: orroa <Estruendo del mar>. *Ixasoaren orroec lazcacen cituela* (Erro).

*Ortots, ortoskaka, ortosketa*: ortotsa, ekaitza, erauntsia <Trueno>. *In du ortots aunitz. Ali-maleko ortosketa*.

*Tzitzor, txetxor*: kazkabarra <Granizo>.

*Tximista*: rayo <tximista>.

*Xirimiri, txirimiri*: euri fina, langarra <Lluvia fina>.

## 2.8. Jokkuak

Sail honetan joku hutsak sartu ditugu, eta baita hurrek kantatzen dituzten kantak. Hauetako batzuk formulak dira, esaldi eginak:

*Arrekapete*: elizako zimiterioan jokutzen den jokua ‘juego que se practicaba en el atrio de la iglesia’.

*Txorro, morro, piko, tallo, ke*. Hau da hurrek kantatzen zuten formula, bat bestearen gainean jartzen zirenean jolasteko.

*Txalo*: hauxe da txaloak eginez kantatzen zen kanta.

“*Txalo txin bis/  
gure haurrak bortz hortz in/  
seigerrenak huts in/  
Datorla amatxi/  
opil aundi batekin/  
arekin zopak in/  
denak ase gaitetxin*” (Mezkiritz).

Tximeletari kantatzen zaiona hauxe zen:

*Fol-fol-fol  
Katalingorri, iruzki zuri/  
fol-fol-fol edo fu, fu, fu*

*Karabi-karaba, que miro ya*: <Juego infantil> bertzela geldirik egon behar zuten, nagusiak burua bueltatzen zuen bitartean,

*Kaxkulo, kazkulo*: kazkuloa <Maderito pequeño de boj, tocón para jugar a la calva>. *Kaxkulo bat paratzen zute, ezpelezkoa ini*.

*Kirikeka*: kirikaka, zelatan <Acechando, espiando>. *Kirikeka da etxe eskinetaik begiretuz nor zer aiden iten*.

*Kuxiniketa, kuxineta*: kuxineta, joku mota bat <Juego con trocitos de cerámica de color, procedentes de vajilla rota>. *Tarrak ginelaik kuxinetetara jolasten ginue*.

*Manfulle*: Erroibarko dantza mota bat Nafarroa Beheretik datorrena <Danza del valle de Erro que procede de Baja Navarra>. “El baile de la manfullé/ que lo bailaba un francés/ y yo como buen soldado/ a la guerra lo lleve”

*Ñaku*: pilota jokaldi bat <Jugada de pelota>.

*Pierril*: pierril <Objeto con el que se juega a los bolos. Consiste en derribar los pierriles con las bolas>. *Pierril oyek bolaiki bota biar zire*.

*Pote-pote*: bote-bote <Juego infantil, consistente en tirar un bote y mientras uno lo recogía, los demás debían esconderse>. *Pote-potean aritu zire jolasean*.

*Txapa*: txanponak, airera botatzen den jokua <Juego consistente en tirar monedas>.

*Txingiliken*: txingilka, hanka baten ganean. *Txingilike ari gine gu an*.

*Txintxarro*: lurrean jokatzeko den jokua, zehaztugabea <Juego que se jugaba en el suelo>.

*Txirrika*: burnizko gorpila <Rueda de hierro>.

*Txurrutaina*: <Juego consistente en ponerse inclinados boca abajo y que los demás salten encima de la espalda. En castellano “el burro”>. *Elizeko zimiterio hartan yolasten ginue txurrutainan*.

*Tzape*: joku mota bat <Tipo de juego>.

*Tziringola*: burnizko uztai bat, bertze batekin gidatzen dena <Juego con un aro de hierro guiado>.

*Tziz*: txanpon bat botatzen zen jokua hormaren kontra, gero neurtzen zen distantzia.

*Zanbaluzka*: zabua <Columpio>.

*Zinbili-zanbala*: zabua <Columpio>.

## 2.9. Gorputzarekin loturikoak

Gorputzak egiten dituen soinuak, ahots marrantatua izatean, puzkerra botatzean edo dardara egitean sortzen ditu onomatopeiak. Erraterako, haizearekin erlazioa daukate-nek *f-* izan ohi dute: *bufetxa*, eta *ufetsa* bezalaxe.

*Arrosieka*: aharrausi egin <Bostezar>.

*Atrija, atije*: atximixka egin <Pellizcar>.

*Atxatxun*: kordegabetu, kordea galdu, zorabia, larritasuna <Pérdida de conocimiento>.

*Atxatxun bat man zeko arrei*.

*Bis-bis*: pixa egin <Orinar>.

*Bufetxa*: puzkerra <Ventosidad>.

*Burrusteka*: besagainka bota <A voleo>.

*Daldara*: dardara <Tembleque>.

*Fu man*: putz egin <Soplar>.

*Kalix*: kalitxa, garatxoa <Verruga>. *Kalixek, ekentzen zire lenago odola ateraziz*.

*Kokoritu*: kokoriko, kukubilko <En cuclillas>.

*Kixkur*: kizkurra <Rizado> *Kixkur-kixkurre inik paratzen zizuste plantxaikin bi altzimaldiak*.

*Kukurrubiko*: kokoriko, kukubilko <En cuclillas>.

*Marranta*: marranta, zintzurke edo eztarriko gaitzen baten ondorioz <Afonía>.

*Mazkaro*: mazkaro <Mancha de suciedad o de tizón en la cara>. *Mazkaro aundi bet duzu ankan* (Lin).

*Pitili*: pitilina, zakila <Pene>. *Mutiko ori ai de beti pitilie atratzen*.

*Txikar, txikar, txiger*: txikia <Pequeño>. *Urtxiger, Biritsikar*.

*Txindirioa*: maskurra <Panadizo>.

*Txingar*: txikia. *Eritxingar* ‘behatz txikia’.

*Txintxurri*: 1. Eztarria <Garganta> 2. Pausu estua. *Txintxurri mehar* <Paso estrecho>.

*Tzopin*, *zopin*, *zopirin*, *zotin*: zotina <Hipo>

*Txilko*, *xilko*: txilkoa, zilkoa <Ombligo>. *Txilkua agerien zauken neska arrek*.

*Tximiko*: zimikoa <Pellizco>. *Balin bazire lemexiko aldie zutela jantzi berrie paratzen zutela egiten niote tximiko bat erranez <<tximiko berri>>*.

*Ufets*, *bufets*: korrokada <Eructo>.

## 2.10. *Janariarekin eta edariarekin loturikoak*

Janaria eta edaria dela eta, onomatopeia anitz sortzen dira; edariak eztaurretik behera egiten duen hotsa imitatuz edo bazkari berezi baten izena asmatzean. Azkuek anitz bildu zituen edatearekin erlazionatua zituenak, adib. *urrupe*. Erroibarko hizkeran bada errefrau bat, janariaren ugaritasunarekin honekin lotua: *Dagoenean bonbon, ez dagoenean, hor konpon*. Azkuek “Literatura popular del País Vasco” bildurikoaren antzekoa da:

*“Dringilin dron (ondo edan),  
gaur Gabon,  
sabela betea daukat eta,  
besteak hor konpon”.*

Honatx gure eremuan erabiltzen direnak.

*Marrakuku*: taloaz eta gaztaz egindako opila <Comida hecha con talo y queso> Baztan-darrei esaten zitzaien: *Baztandarra tuku-tuku, kolkoan mile marrakuku* (Intza).

*Patxaka*: basa sagarra, oso mina dena <Tipo de manzana ácida>.

*Patxarra*: pattarra <Aguardiente>.

*Piporropil*: opil batzuk festetan jaten zirenak <Bollos que se comían en fiestas>.

*Tantta*: tanta, orokorrean ardoari esaten zaio <Vino>. *Bota tanta pixkoat erraten da*.

*Txinte*: tinta, ttinta, ttantta <Gota>. *Ola artzen da azukre koxkor bat eta arei bota ainbertze petrolio txinte* (Mez).

*Urrupa*: zurrupa <Trago>.

## 2.11. *Landareak*

Onomatopeiak erabiltzen dira bertze alor semantiko batzuk izendatzeko, erraterako, landareena:

*Azkurrubi*: azkurrubia <Planta no identificada utilizada para quitar las verrugas de los animales>. *Azkurrubie ibiltzen ze kalitsek kentzeko*.

*Babatxa*, *babatza*, *babaratza*, *gabatxa*: pagatxa, pago-ezkurra <Fruto del haya>.

*Baboxa*: pagotxa, landare belarkara (*Trifolium incarnatum*) <Trébol. Hierba ancha y corta, de segundo corte con la que se hinchaban las ovejas>.

*Kaskil*: azala <Cáscara>. *Arrotze koskilak bota*.

- Koskil, koxkil*: koskola, kozkorra, artaburu aletuarena <Tallo del maíz cuando se ha arrancado la mazorca>
- Kosko*: koskoa, batez ere artoarena <Mazorca de maíz>. *Artokoskoa tire granoa dauketen buruek*.
- Krisketa* <Planta medicinal (sin identificar), que se picaba y con manteca de cerdo se obtenía una pasta que se colocaba sobre la zona afectada para quitar los diviesos>.
- Lisontsi, lintsuntsi*: isutsa lorea <Flor de saúco>. *Lisontsiz beterik zagon ura*. // *Lisontsi lore eta piñu bedeikatua* (Mez).
- Kuzkuta*: kuskuta <Planta parásita, con aspecto de hilo fino que abunda en las ollagas. Se utilizaba para curar las verrugas. Cuscuta>. *Kuzkuta ayekin kentzen ginuze kalitsek*.
- Mazurtz*: masusta <Mora>. *Ude ontan atra dire mazurtziak* (Lin).
- Mingarratz, mingerretx*: mingarretxe <Planta, Acedera>. *Lenágo sagoyétan Mingerratsa ere baze ta zenbaitzuren yaten tzute, nik ez tut lazki yan* (Lin).
- Pipirripi*: <Amapola>.
- Zumerike*: zumerika, zumea <Vara de mimbre>. *Main dizut zumerike batekin e!* (Mez). // Asmakizuna: *Luze ta mear, mundu guzia in bear, da zumerike* (Lin).

## 2.12. Haur mintzoa

Haur mintzoa onomatopeien sortzaile da. Batzuetan umeekin egiten diren ekintzek sortzen dituzte onomatopeiak: lo egitea, arrikonko eramatea, edo txingilika joatea. Ber- tze batzuetan, jokuak dira edota haurrei esaten zaizkien adjektiboak.

- Arrandiko-arrandatz*: Haurrek esaten zuten esaera, gauza bat lehena aurkitzen zuenean <Fórmula que se decía cuando un grupo de niños veía una cosa. El que antes lo decía se quedaba con ello>.
- Arretxintxin*: haurrak bizkarrean eramatea <A horcajadas>. *Arretxintxin ibiltzen zitue aurrak*.
- Arrikonko*: bizkarrean eramatea <A horcajadas>.
- Bibirixko*: bixkia <Gemelo>. *Ardi batek bibirixkoak in tu* (Lin).
- Bo-bo*: lo egitea haur hizkeran <Dormir en lenguaje infantil>. *Zazi bobo!*
- Kilikeri*: kilikaria, erraz kilikatzen dena <Que hace cosquillas>.
- Kiliketu*: kilikatu <Hacer cosquillas>. *Yagozi, zenbait besapetan eiten badakozu, kiliketzen dira*.
- Kili-kili*: kilika <Cosquillas>. *Inen dizut kili-kili*.
- Kokola*: txokolata <Chocolate>. *Len kokola guti yaten ginue*.
- Kokolotxe*: bizkarrean eramatea <Arre caballito>.
- Kokon*: kokon <En lenguaje infantil, dícese del monstruo infantil>. *Kokon bat torriko de*
- Kokoritu*: kukubilko jarri <En cuclillas>.
- Koxkortu*: hazi <Dícese del niño crecido> *Aur goi anitz koxkortu de*.
- Kukurrubiko*: kukubilko jarri <En cuclillas>.
- Kuskuseatu*: zokoak mihatu. <Mirar, registrar los rincones>.
- Kuxineta-kuxiniketa*: haur txikien jokua <Juego infantil consistente en jugar con trocitos de loza>.

*Llollo*: esnari esateko modua, haur hizkeran <Leche>.  
*Ñiki-ñaka*: zirikeka ibiltzea, haserre <Andar enfadado>. *Oyek beti daitze ñiki-ñaka, ori haurridetan izeten da, ori de yoku bet aurrena kasik*.  
*Piko-piko*: mokoka <Discutiendo>. *Or daitze piko-piko*.  
*Pote-pote*: pote bat bota eta izkutatu, joku mota bat <Juego infantil>.  
*Potoko, potoko*: 1. zaldi txikia <Caballito>. 2. txikia eta borobila <Chiquito y redondo>.  
*Pupu*: mina, haur mintzoan errana <Dolor>. *Xer duxu, pupu?*  
*Talotxin*: zaplastekoa <Tortita cariñosa>.  
*Tas-tas*: zaplastekoa <Tortazo>.  
*Tetela*: hitz totela dena <Tartamudo>.  
*Totoriko, Totoriketu*: kukubilko <En cucillas>.  
*Tattarra*: neska txikia <Niña pequeña>.  
*Totto*: goxokia, haur hizkeran <Caramelo>.  
*Txapada*: zaplastekoa <Tortazo>.  
*Txingili, txingilika*: lurean jolasten den jokua <Juego a la pata coja>.  
*Txitxi*: haragia, haur hizkeran <Carne> *Jan txitxi pixkoat!*  
*Txizpurri*: ile kizkurra duen neskatxa <Pelo rizado>.  
*Txongolo*: txonkatila <Tobillo>. Hau zen kantatzen zen abestia haurraren zangoak hartuta, *txingili-txongolo*.

*Txingili, txongolo/  
gure haurra nongo/  
ona bada etzeko/  
gaixtoa bada Pellorendako!*

*Txotxolo*: tuntuna <Tonto en sentido cariñoso>.  
*Ziriketu*: zirikatu, ziria sartu <Incitar>. *Ez kiliketu yago*.

### 2.13. *Tresnak eta tramankuluak*

Tresna anitz onomatopeietan oinarriturik daude, batzuetan, horiek maneiatzean egiten duten soinuaren abstrakzioarekin; tarratuluarekin gertatzen den bezala, *trrrra*-en anzeko soinua egiten du.

*Filde, filda*: filda <Cincha de los animales que se les ajustaba debajo de la tripa>. *Filda ertxituik astoa etzaken erori*.  
*Furrillo*: furrilloa <Pestillo de madera, andabilla>. *Furrilloa da olaxeko troxoat erdien xiloteekin, sartzen da iltze bat emendik ta atarie erekitzeko zuzentzen da*.  
*Kalaka*: kalaka, Aste Santuan jotzen zen zurezko tresna <Matraca hecha de tres tablillas utilizada en Semana Santa>. *Lenago Garizumen kalakak eta karrakak soñatzen zire, tablekin ta bertzia erruedatekin ibiltzen baitzen*.  
*Katxeta*: katxeta <Tachuela, clavito de zapatos>. *Katxeta zire olako iltze txar batzuk*.  
*Kaxeta*: katxeta <Escabel, asiento pequeño>.

*Kixkil*: 1. gazta egiteko zurezko molde borobila <Molde para hacer queso> 2. Mezkirizko gizon baten goitizena eta bere etxearena ere bazen <Apodo>. *Mezkirizko etxetan bakotxa bere etxean bizi da. Bakarrik Kixkilen Bentan ez da ala.*

*Klaxketa*: <Pestillo>.

*Klisketa, krisketa*: krisketa, maratila <Pestillo>. *Atari orren krisketa autsi de.*

*Kuttun, kutun*: kutuna <Especie de bolsita que llevan los niños recién nacidos y donde se meten los evangelios>.

*Kuzkulle, kuzkulleko*: zintzarria, joarea, txintzarria <Cencerro>. *Kuzkulleko ure aitzen ginuelaik zauntzen gindue gure ardiek.*

*Marruxketa*: marrusketa, zurginaren lanabesa <Cepillo de carpintero para refinar la boca de las cucharas de palo y para hacer mangos de azadas etc>.

*Tarratulo*: bilabarkina <Berbiquí>.

*Trokola*: txirrika <Especie de polea para subir cosas>.

*Tuttu*: zerbait estua, hodiaren itxura duena <Tapón de la bota de vino y agujero del pico del porrón>. *Kentzatzu tuttu goi. Basatutu*: basatutua <Se le denomina así a una especie de masa que hacían con el saúco extrayendo el interior del tallo y que se utilizaba, metiéndola en un tubo, para disparar>. *Basatutu oyekin botatzen ginue tiroa pezala.*

*Txarrantxa*: behiak garbitzeko burdinezko eskubila. <Cepillo para rascar a los animales> *txarrantxa zar batzuk batugu agoztegien.*

*Txirribile*: <Devanadera>.

*Txirrika*: burnizko gorpila, haurrek eramaten zutena burni batekin <Rueda de hierro>.

*Txirimista*: leiho txikia, etxeko beheko partean irekitzen zena <Ventana pequeña>.

*Txotz*: makil txikia <Clavija, palillo>.

*Tzirriztilo*: korapiloa, txoriak hartzeko egiten zen tranpa zaldiazen ileaz egina. Punta batetik askatzen den korropiloa. *Hemengo gizonek tzirriztiloat paratzen zute txoriak arpatzeko.*

*Tzurruzte*: zulutxo batetik isurtzen den ura <Grifo>.

*Zarrakamalda*: <Marrazo. Gancho para quitar matas de los ribazos>. *Zarrakamaldaikin kendu biar dire belar oyek.*

*Zinga, tzinga*: burnizko pieza, zuhaitzean sartzen den zirria <Pieza de hierro>.

*Zoketa*: zoketa <Guantelete de madera que emplean los segadores para protegerse de las manos>. *Zoketa anitz izeten zire or dilinden.*

*Zokete*: zoketea <Guantelete de madera>. *Zurezko zoketeak paratzen ginuze.*

*Zorrotz*: zorrotza <Afilado, agudo>. *Zorrotzarri*: zorrotzeko harria <Piedra de afilar>.

*Arrie zorrotzeko aizkorak eta kanibetak ta oyek.*

*Zotz-txotz*: makil txikia <Palillo>.

## 2.14. *Ezaugarri fisiko eta psikikoak*

Hainbat onomatopeiatan pertsonen ezaugarri negatiboak azpimarratzen dira, alegia, akats fisiko negatiboak edota gisa bereko ezaugarri psikikoak. Hainbatetan onomatopeiek ezaugarri fisiko negatiboak lexikalizatzen dituzte. Zerrenda honetako batzuk adjektiboak dira, bertze batzuk, ordea, aditzak edo adberbioak.

- Aufatu(a)*: handikote, potolo, puztua <Hinchado>. *Aufatua dago gizon goi*.
- Borobil*: borobila <Se dice al niño orondo >. *Zato onata borobil!*
- Eleka/teleka*: gelditu gabe mintzatzea <Hablar sin parar>.
- Eleput*: hitzontzi <Hablador>. *Ara, ara! gizon goi es un eleput o keleput!*
- Fanfarro*: harroa <Fanfarrón>. *Ure ze fanfarrokara (Lin)*.
- Fardel, fardelenekua*: pertsona utzia, axolagabea, zatarra, gutxi garbitzen dena <Dejado, abandonado>.
- Farranduska*: parranda maite duen emakumea <Juerguista>. *A ze farranduska inik zauden! (Mez)*.
- Farrusko*: farrusko <Orguloso, fanfarrón>. *A ze farrusko dailen aur goi*.
- Fiarki, fierki*: fierki <Muy, mucho, firmemente>. *Maiteute fierki*.
- Fullero*: harroa <Orguloso> *Mutiko fulleroak zire oye*k.
- Furrunda*: bat-bateko haserrea <Enfado súbito>. *A ze furrundak dabilen neska goi!*
- Guripa*: zitala, pikaroa <Pícaro, tunante, bribón>. *Guripa ze gizon goi*.
- Kankail, kankai*: kankail, kankailu <Persona grande y desgarbada>. *Gizon ura kankaile da! Ai urde kankail!*
- Kazkarra*: 1. kazkarro, burugogorra <Borracho, grosero>. *Mutiko goi beti kazkarro egoten ze*. 2. burugogorra <Testarudo, terco>. *Aur goi ze kazkarro den (Mez)*.
- Kili-kolo*: ezeongorkor dagoen harri bat, erdi dilindan.
- Kixkil*: zekena, ziztrina, pertsoneri aplikatua <Mezquino, pobre, despreciable>.
- Koko*: kokoa <Apelativo utilizado para denominar a la gente de los pueblos que no hablan euskara, en general son los meridionales>. *Kokoa beitikoa da. Auriz ere kokoerrie da*.
- Konkor*: konkorra, tontorra, sorbaldako irtengune nabaria, bizkarrezuraren desitxuraztearen ondorioz <Joroba>.
- Koxkor*: koxkorra <Eje de la fruta>. *Uderia yan ta koxkorra bota*.
- Kozkor*: 1. koskorra, indarra, adorea <Nervio, vigor, fuerza>. *Gizon orrek badu kozkorra!*  
2. <Parte dura de una madera, trozo de algo>. *Tella kozkor batéki ur beróaikin (Zil)*.  
3. ogi muzturra <Extremo del pan y corteza> *Karri kozkor goi!* 4. <Crecidito, en referencia a los niños>. *Mutiko kozkorrak zire oye*k || *Mutiko kozkor oyék erraten zuten...*
- Kuskusero*: zoko guztiak miatzen dauden haurrei esaten zaie <Curioso>.
- Lingirde*: ergela <Simple>.
- Marifurrunda*: jenio txarreko emakumea <Mujer malhumorado>. *A ze marifurrunda ini tagon makome goi!*
- Marizerrenda*: janzkera zakarra duena <Mujer descuidada>. *Ara, ara! Marizerrenda goi! (Mez)*.
- Marmarrandi*: marmara handia <Protestón, refunfuñón>. *Ori gizon marmarandie!*
- Morrosko*: morroskoa <Mocetón, chicarrón>. *A ze morrosko inik dagon aur goi!*
- Mutzurdin*: neskazaharra <Mujer soltera>. *Mutzurdin goi beti atari ondoan eoten da (Mez)*.
- Ñarro, ñañarro*: gorputz txikia duena <Que tiene cuerpo pequeño>.
- Okatu*: fundamentu gutikoa <De poco fundamento> *Ai urde okatu!*
- Panparro*: harroa <Orguloso>.
- Panparrontzi*: harrokeria, fanfarrokaria <Fanfarronería>.
- Pattal*: makala <Débil>.



*Pelele*: pelele <Fácil de dominar, de poco carácter>. *Pelele (izena) paratu zio Jozepak bere senarrai, bere andriak paratu zeko.*

*Pinpin*: dotore eta txukun <Elegante y limpio>. *Pinpine da bat ongi beztituik balin badago ta maten bedu inportantzia berarrek.*

*Ponpoxo*: 1.ponpoxa, ongi apaindua, harroa <Orgulloso>. *Jeneralian izeten da ponpoxa da mazte bat balin beda nai badu bertzea pezela in ta ori iten du. Ori gizon ponpoxo!*

*Pottolo, pottoko*: txikia eta borobila.

*Potzo-potzo*: mozkor-antza <Embriagado>. *Potzo potzo dago.* ‘Ardoarengatik zorabiatu xamarra’.

*Purtzil*: fundamentu gutiko pertsona <De poco fundamento>.

*Putzurrim*: esaten zitzaion kartetan bateko urrearekin gelditzen zenari.

*Puzmin*: zakarra, latza <Desgarbado, dejado>. *Gizon puzmiñe da gero ori!*

*Tarrapatan*: sosegurik ez duen jendea <Que no tiene sosiego>. *Tarrapatan goi torri de.*

*Tartarra*: hitzontzia, *tartarrear*: hizketan <Charlando>. *Han ari zen tartarrear.*

*Ter-ter*: poliki eta zailtasunez ibiltzea <Andar despacio y con dificultad>.

*Tetela*: totelka aritzen dena <Tartamudeo>.

*Tirrie*: tirria, irrika <Anhelos> *Au tirrie!*

*Tirripittin*: ttirripittine, txikia eta xarmanta <Pequeño y bonito>.

*Tokilo*: pertsona astunari, geldoari, potoloari esaten zaio <Pesado, gordito>. *Ara, ara, ze tokilo!*

*Tanttalan*: hitz gehiegi egiten duenari esaten zaio ‘fundamentorik gabekoa’ <Hablador>. *Hori de tanttalan!*

*Tartarro*: hitzontzia, era maitagarrian errana <Hablador en sentido cariñoso>.

*Txirripittin*: txikia eta polita, hurrei erraten zaie <Pequeña y bonita> *Nexka ttirripittina!*

*Tuntur-tunturturik*: makurturik <Encorbado>.

*Tutula*: ergela <Simple>.

*Txirribis*: zirikatzailea <Entrometido>. *Txirribis horrek ala erran zue!*

*Txotxolo*: ergela, era maitakorrean errana <Simple, tonto>.

*Xabar*: zabar <Desgarbado>.

*Xalo*: jatorra <Majo>. *Oso gizon xaloa da* (Irag).

*Xaloki-xaloki*: poliki <Espacio>. *Aziendandako gauzaik onena da xaloki mintzatzea.*

*Zunzune*: ergela <Simple>.

## 2.15. Animaliak

Anitz izan ohi dira animalia txikiak izendatzeko erabiltzen diren onomatopeiak. Guk ez dugu anitz bildu, euskeraren egoera kontuan hartuta:

*Ardanbilo, armanbilo*: armimaua <Araña>.

*Atxanini*: pinpilipausa <Mariposa> (Orotz Betelu).

*Eskilatxo*: eskilatxo <Picaraza, urraca>. *Eskilatxoak dire erdi zuri erdi beltz* (Lin).

*Igela, negela*: igela <Rana>.

*Karaka*: oilo karaka <Cacareo>.

*Karranklan*: karranklan <Alacrán o arraclán>.

*Klo-klo*: oiloaren soinua <Sonido de la gallina>.

*Kuku*: txori mota bat <Cuclillo>.

*Kukune, kunkune*: apoa <Sapo>.

*Kukurruxte*: kukurrusta, oilarraren kaildurra <Cresta del gallo>. *Gure olloak kukurruxte pollite du*.

*Kukusu*: arkakusoa <Pulga>. *Balinbauzu kukusuak o zorriek izein duzu bai atsa*.

*Kuleka*: oiloa, arraultzak erruten ari denean <Clueca>.

*Kunke*: axuriek bataztean, amarengandik edatean ematen dituzten kolpeak <Golpecito dado por los corderos al mamar>.

*Tritta*: txita <Polluelo>.

*Txipa, txipe, txinuko*: txipa, arrain txikia <Bermejuela>.

*Tzirtzir*: kilkerra <Grillo>. *tzirtzirrek ederki kantatzen tzute*.

*Txitxarro*: arrain mota bat <Turel>.

*Zozo, xoxo*: <Mirlo>. Txori mota bat.

## 2.16. *Ekintzak: mugimendua*

Gisa bateko edo besteko ekintzek sortzen dituzte onomatopeiak; batzuetan irri egitean edo putz egitean eragindako soinuak aditz berriak sortu ditu.

Bertze batzuetan, errepikapen erabatekoak ditugu (putz-putz) edota *-ka* rekin osaturiko adberbioak (daldarike):

*Arramaska, arramizke*: arramaska egin <Arañazo>.

*Atz in, azka egin*: hazka egin <Rascarse>.

*Azkaka*: hazkaka, hazgalea <Rascándose>. *Azka ari balin beda azkaka erraten dugu*.

*Azkatu*: nazkatu <Asquearse>. *Lemixik yaten tzinuze orratik, beño gero, azkatzen zine ta etzinue kusi nai ere*.

*Bilintxi-balantxa*: kulunkatu <Mecer>.

*Buzterrostiko*: buzterrostikoa <Coz que dan los caballos, mulos y asnos levantado las dos patas traseras>. *Buzterrostikoa iteunte zaldiek eta oyek, mandoek*.

*Dardarike*: dardara <Tembleque>.

*Farrastatu*: farrastatu <Deshojar las cañas de maíz>.

*Irri egin, irrizajaka*: irriz ajaka egon <Reirse>.

*Karabilkatu, karabilketu*: kiribilkatu, zizurkatu <Enroscarse, enrollarse, ensortijarse>.

*Bagoain orbela beti karabilketui tago, beti prest aiziakin arata onata* (Lin).

*Kazkarratu, kazkartu, kazkurretu, kazkurrietu*: orditu, mozkortu <Ponerse de mal talante, pendenciero >. *Ardo ure aski ze kazkarratzeko* (Lin). *Kazkartu* <Golpearse>. *Badire larrañak pareta au baño anitez gorago dutenak yauzketu naizena ni eta kazkarratuik* (Lin).

*Kalizke*: oihua, garrasia <Grito, chilló>. *Kalizke bakarra iten zue!! Ozkiten baizekote, kalizke iten zue* (Lin)// *Ai! Ori de kalizket* (Lin).

*Katzaka, katazka*: katzaka, gatazka <Esfuerzo grande>. *A ze katzakak pasatuik dauzkigun!*

*Kaxketako*: kazketakoa <Golpe>. *Kaxketako aundie artu zue* (Mez).

*Kazkarreko*: buruan emandako kolpea. *Kazkarreko bat artu zue aur orrek*.

*Kirikeka*: kirikaka, zelatan <Espiar>. *Kirikeka da etxe eskinetaik begiretuz nor zer aiden iten*.  
*Kirriski-karraska*: fruta hortz tartean jatean egiten den soinua <Sonido al comer la fruta>.  
*Koixtin*: ekoist egin, hilautu, haurra galdu <Malparir>. *Ardi orrek koixtin du* (Lin).  
*Kokoriketu*: kokoriko jarri. <Ponerse en cuclillas>. *Kokoriketu emen!*  
*Kozka, koska*: kozka <Golpe>. *Kozka bat artu du ta orai negarrez*.  
*Kuli-mulika egon*: Zer egin ez dakizuela edo lan gutxirekin'; *Kuli-mulike zabilzate*.  
*Kuskuseatu*: begiratu, txokoak miatu <Registrar los rincones>.  
*Lamizkatu, lamixketu*: lamikatu <Lamer, arañar en sentido figurado>. *Adar oyekin lamizketuko zara*.  
*Lamikeka*: lamizkaka <Lamiendo>. *Txakur or beti lamikeka ibiltzen da*.  
*Marruxketu*: 1. Zura urratu, tarratatu. 2. Igurtzikatu.  
*Putz-putz*: handik hara ibili. *Beti putz-putz Montaineko* dio esaera zaharrak.  
*Tirri-tirri*: alde batetik bestera ibiltzea <Andar de un lado para otro>.  
*Ttaka-ttaka*: onomat. esnea edatean egiten den soinua <Sonido al beber la leche>. *Esnea edan ttaka-ttaka*.  
*Ttüttili-ttattala*: poliki eta dorpe ibiltzea <Andar despacio y torpemente>.  
*Tziztetu*: ziztatu <Pinchar>.  
*Tur-tur, ttur-ttur*: poliki-poliki ibiltzea <Andar despacio>.  
*Txinguli-manguli*: modu batean edo bestean <Andar de un modo para otro>.  
*Tzuku-tzuku*: edatea xurgatuz <Beber absorbiendo>.  
*Zartako, eskuzarta*: zaplasteko, eskuzartada <Tortazo>.  
*Ziga-ziga*: edateren soinua. *Edan esnea, ale! ziga-ziga!* <Beber leche>.  
*Zitz*: ziztatu <Punzar>.  
*Zurra*: zurra ederra eman. <Dar una paliza, o una torta>.  
*Zurrietu*: zurriatu <Dícese de la persona que ha trabajado mucho y se encuentra cansado>. *Gizon goi ongi zurrietue dago*.

## 2.17. *Komunikazioa*

*Apa, pa*: musua, haur hizkeran <Beso>. *Karri pa!*  
*Apa, pa man, pa karri*: pa eman, muxua eman, musua ekarri <Dar un beso en el lenguaje infantil>. *Karri (a)pa amatxiri. Katxu pa! Man pa aiteri*.  
*Ako!*: haur hizkera, zerbait bukatu denean esaten da <Expresión cuando algo se acaba>.  
*Ako!*  
*Doi-doi, doi-doi*: doi-doi, ozta-ozta, juxtu-juxtu <Justamente>. *Doi-doya eldu zire etxera*.  
*Ekilikua!*: hor zeok! asmatzen duenean esaten da <Voz de acierto> .  
*Ep, epa*: interj. <Voz de saludo>. *Ep, epa!*  
*Karraña egon*: haserre egon <Estar enfadado>. *Zer zaude, karraña?*  
*Karrañatu*: karraina egin, umore txarrean egon <Reñir, estar malhumorado>. *Beti karrañatzen ai de*.  
*Kia!*: sineskaitza adierazten duena: *-Mattin esta orañño torri. -Kia!*  
*Kukatu*: begia kliskatzea <Guiñar el ojo>.

*Kuli-mulika*: Lan gutirekin ibili. *Kuli-mulika zabilzate*.  
*Ñiki-ñaka*: mokoka ibiltzea <Andar riñendo>. *Egun guzien ñiki-ñaka ibili zire*.  
*Ttuku-ttuku*: ixilka-mixilka ibiltzea <Andar callandito>.

## 2.18. *Suntsiketa*

Zerbait haustea edo urratzeak dakarren soinua. Kolpea jotzean edo suntsitzean, erre-tzean (kix-kix) edo, desegitean; soinu horiek eragin dituzten hitzak:

*Abarrikatu*: xehatu <Destrozar>. *Dena abarrikatuik tago. Lucifer serpiente zar gaisstoari burua austera eta abarricacera* (Erro).

*Arraildu*: arraildua, pitzatua <Rasgar, agrietar>. *Pareta arraildue dago // Paratu biar tzindue tzotz bat arraildute // Egurre arrailtzen ginue, ziri batekin erekitzen ginue. 2. arraildua, arras mozkorra. Mozkor arraildue dago*.

*Arrakatu, karrakatu*: gauza bat karraskatu <Ruido con los dientes>.

*Danbaka-danbaka*: golpea adierazteko <Sonido de golpe>. *Danbaka-danbaka aizkoraikin*.

*Dinbi-danba*: alde bateko eta besteko mugimendua <Movimiento de un lado para otro>.

*Kinki-kanka*: gogor jotzearen soinua <Sonido de golpe>.

*Kixkildu*: kiskali <Quemar>. *Iretxiekin kixkildu zue. // Il ta artu ta érre ta kixkildu irétxieki gero garbitu telliáki ta tripak átra ta* (Zil).

*Kizkorratu, kizkortu*: erabat erre <Abrasar>.

*Pipildu*: pipildu <Quemarse completamente, abrasar>. *Belar gori ezbalinbaute kentzen urtioro, aski de norbaitek zigarroa botatzen badu or, ori dena pipildiko da*.

*Pis-pas*: gauzak laster eta ti-ta batean egitea <Hacer las cosas en un momento>.

*Purrusketu*: porrokatu <Romper, hacer pedazos>.

*Putzikatu*: porrokatu <Romper, hacer pedazos>.

*Tarrata, tarratako*: tarratako <Rasgadura>. *A ze tarratako in duzun hor*.

*Tarratatu*: oihal bat haustea <Romper, rasgar>.

*Txapada, zaflada*: zaplastekoa <Tortazo>. *Txapada bat main dakot nik*.

*Zinpa-zanpa*: artilea jotzea kolpeka <Golpear la lana>.

*Zirri-zarra*: gauzak nolanahegi gitea <Hacer las cosas desgarbadamente>.

## 2.19. *Janaria-edaria*

*Aguatxirri*: aguatxirria <Bebida o caldo que parece agua o tiene exceso de agua>.

*Borone*: borona <Bollo hecho con harina de maíz>. *Arto irinaikin egiten zire lenago opile batzu, borone deitzen ginio*.

*Ziga-ziga*: edatea, haurrei erraten zitzaien. *Ale, edan zazu ziga-ziga!*

## 2.20. *Denetarik*

*Korropillo*: korapiloa <Nudo>.

*Korropiletu*: korapilatu <Anudar>. *Korropiletu in biar da ongi korda goi*.

*Kuku*: zuhaitz bat mozterakoan bertze baten gainean erori gabe gelditzen denean <Árbol apoyado en otro al cortar> 2. Urez beteriko putzua <Pozo de la colada> *lixu-kuku*: arropa garbitzeko ontzia.

*Pupu, kupu*: kortxila, sabaitik ikuilura belarra botatzeko erabiltzen den zuloa <Agujero para echar la hierba del pajar>. *Uretan kupuraño joan gine*.

*Kuluxka, kluxka, kluxke*: kuluska <Siesta>.

*Pipi*: oilo eta oilanden eritasuna <Enfermedad de los pollos>.

*Talla-malla*: belar motzez egindako errenkada <Fila de hierba cortada>.

*Tritatu*: sugeak hozka egitea <Mordida de la cuebra>.

*Txintxurro*: teilatutik behera erortzen diren izotz puskak <Carámbano de hielo>.

*Txiripe*: kasualitatea <Casualidad>.

*Tzizte, txiste*: eztena <Pincho>.

*Tzonbor*: enbor handia <Tronco grande>.

*Zirin*: zirina <Grasa, sustancia>. *Orrei atra bear dakote zirine guzie*.

*Zirri*: zirria, zikinkeria. <Suciedad>. *A ze zirrie dagon atari gibelean*.

## Ondorioak

Laburbildu ditugu artikulu honetan Nafarroako Erroibarko onomatopeiak; Ibarretxekin bat nator pentsatzean uste baino ugariagoak direla hauek, eta ikusi bezala, hainbat eremu semantiko bete dugu, ohikoenak direnak. Zerrenda honetako anitz bertze hizkeretan ere erabiltzen dira; aldiz, bertze batzuek hizkera honetako lexiko alor honen berezitasuna islatzen dute. Lan honetan gure xedea sailkapen semantikoa egitea izan da, hainbatetan adibidea esaldi batekin ornitu dugularik; gisa berean, zenbait adibideren itzulpena gaztelaniaz eman dugu, beharrezkoa iruditut zaigunean.

Laburtzapenak: Lintzoain (Lin), Mezkiritz (Mez), Zilbeti (Zil)

## Bibliografia

- HUALDE, J. L. (1991), J. A. LAKARRA eta R.L. TRASK (arg.) (1995): *Towards a History of Basque Language*, Amsterdam y Filadelfia, John Benjamins.
- IBARRA, O.: *Erroibarko eta Esteribarko hiztegia*, Mendaur bilduma, Euskaltzaindia, Nafar Gobernua.
- IBARRETXE, I. (2006a), “Estudio lexicológico de las onomatopeyas vascas: El Euskal Onomatopeien Hiztegia: euskara- Ingelesera-Gaztelania”, *FLV* 101, 147-162.
- (2006b): *Sound Symbolism and Motion in basque*, Munich, Lincom Europa.
- (2006c): *Hizkuntzaren bihotzean: euskal onomatopeien hiztegia*, Gaiak.
- GARCÍA DE DIEGO, V. (1968): *Diccionario de voces naturales*, Madrid, Aguilar.
- NEUMEYER, E. (1993): “Iconicity and generative grammar”, *Language* 68, 756-796.
- NODIER, Ch.: *Dictionnaire Raisonné des Onomatopées Françaises*, editionas Trans-Europ-Repress, 1984, testua 1828. urteko faksimile batetik aterata dago.
- SAUSSURE, F. (1916): *Cours de Linguistique Générale*, arg. Charles Bally, Albert Sechehaye eta Albert Riedlinger, Lausanne, Payot. M.Armiñoren itzulpena, 1989, Curso de Lingüística General, Madrid, Akal.